

Zerbitzu anitzetako peoia aldi baterako kontratatzeke deialdia.

Garraldako Udaleko alkateak 2022ko irailaren 5an emandako 31/2022 Ebazpenaren bidez, Zerbitzu Anitzeko Peoiaren lanpostua aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda eratzeko deialdia onartu da. Hauexek dira deialdiaren

OINARRIAK

1.oinarria. Arau orokorrak.

- 1.1. Deialdi honen xedea da, oposizio-sistemaren bidez, izangaien zerrenda bat osatzea, Garraldako Udalaren zerbitzura arituko den zerbitzu anitzetako peoi lanpostua betetzeko (lan erregimenean). Udalean sortzen diren beharrak aldi baterako betetzea du helburu, eta ordezkapenak egiteko ere erabiliko da: laneko bajengatik edo oporregatik lanpostua hutsik gelditzen bada edo baita edozein arrazoiarengatik une zehatzetan zerbitzua indartzea behar izanez gero ere, Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamenduko 42.c) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.
- 1.2. Lanpostuak E mailari dagozkion ordainsariak izanen ditu, Ordainsarien Behin-Behineko Araudian xedatutakoaren arabera (maila horri dagozkion eginkizunak direlako), plantilla organikoan aurreikusitako ordainsari osagarriak edo horren ondoriozko lan-harremanean finkatzen direnak, bai eta hitzarmen kolektiboan lor daitezkeenak ere.
- 1.3. Lanaldi- eta ordutegi-erregimena Udalak lanpostu horretarako ezarritakoa izanen da, betiere zerbitzuaren beharretara egokituta, eta edozein unetan aldatu ahal izanen du organo eskudunak. Lanaldian igande eta jaiegunetako lanak sartu ahal izanen dira. Lanaldia % 30ekoa eta malgua izanen da, zerbitzuaren beharren arabera egokituko dena.
- 1.4. Kontratatutako pertsonak hilabeteko probaldia gainditu beharko du, eta, probaldi horretan, bi aldeetako edozeinek kontratua bere kabuz deuseztatu ahal izanen du. Lanpostua hutsik gelditzen denean aldi baterako betetzeko kontratatzen den pertsonak kargua utziko du lanpostuaren titularrak edo jabetzako lanpostu hutsa betetzeko hautatutako pertsonak kargua hartzen duenean.
- 1.5. Oinarri hauetan aurreikusi ez den orori dagokionez, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuan (Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duena), ekainaren 5eko 113/1985 Foru

Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduan eta horrekin bat datorren araudian xedatutakoa beteko da, aplikatzekoa den guztian.

2. oinarria. Funtzioak.

Bete beharreko eginkizunak deialdiaren kategoriaren arabekoak izanen dira, bere mailari dagozkionak, eta horien artean honako hauek daude, adierazpen gisa eta ez baztertzaila gisa:

- Udal zerbitzuak eta bulegoak mantentzea, garbitzea eta zaintzea: frontoia, kiroldegia, eskola-kontzentrazioa, bideak, udaletxea, mediku-kontsultategia, (lorenzaintza, iturgintza, elektrizitatea, pintura, igeltserotza, soldadura, arotzeria...).
- Azpiegiturak eta instalazioak mantentzeko eta konpontzeko lan errazak eta konplexutasun tekniko txikikoak egitea: urak, saneamendua (iturgintza, elektrizitatea, mekanika, pintura, igeltserotza, soldadura, arotzeria, garbiketa, zangak ireki eta ixtea...).
- Lorezaintzako eta nekazaritzako lanak egitea zuhaitzetan, lorategietan, espazio publikoetan eta udal-finketan.
- Udal-makineria gidatzea; erreminta eta lanabesak maneiatzea, mantentzea eta horien konponketa errazak egitea.
- Hiri-altzariak eta tresnak lekuz aldatzea, instalatzea eta mantentzea: zutoinak, seinaleak, farolak, bankuak, agertokiak, hesiak, jaietako eta ekitaldi publikoetako tresnak, etab.
- Udal-azpiegitura, -bulego eta -ekipamenduetan antzemandako akats, matxura eta kalte errazak eta konplexutasun teknikorik gabekoak kontrolatzea.
- Udalak programatutako jaiak eta kultur ekitaldiak prestatzen eta garbitzen laguntzea, bai eta Udalak laguntzen edo babesten dituen ekitaldietan ere.
- Segurtasun- eta higiene-arauak betetzea, zeregin bakoitzerako babes-ekipamendu egokiak behar bezala erabilia.
- Lana egiteko ezarritako arauak, prozedurak eta zehaztapenak ezagutzea eta aplikatzea.
- Ezarritako lan-programa betetzeak eta zerbitzuaren beharrek noizbehinka eta ordutegi-malgutasunari dagokionez planteatzen dituzten eskakizunetara egokitzea.
- Udal-ordenantzak betetzen direla kontrolatzeko eta jarraipena egiteko lanak eta hirigintza- eta ingurumen-ikuskaritzako lanak, horretarako lizentziei eta obrei, bide publikoa okupatzeari, isurketei eta abarri buruzko araudia betetzen dela zainduz.
- Udal-zerbitzuei laguntza ematea eta horien mandatuak egitea: jakinarazpenak, iragarkiak, bandoak, udal-publizitatea, dokumentuak helaraztea eta tresnak garraiatzea.

- Agindutako kaleen garbiketa egitea, udalak eskura dituen baliabideak erabiliz.
- Landa-bideak, kaleak, hiri-bideak eta mendiak, eraikinak eta udal-jabetzak mantentzea, eta udal-hilerria mantentzea eta garbitzea.
- Hiriguneko berdeguneak mantentzea. Oro har, lorezaintzako lanak, kale eta plazetako zuhaitzak inaustea eta parke eta lorategiak mantentzeko beste lan batzuk.
- Hornidura publikoko ura kloratzea eta kloratzeko gailua mantentzea.
- Edozein eratako udal-zerbitzuak eta alkateak agintzen dizkion beste edozein lan egitea, guztiak ere bere eskumenen esparruan eta bere maila eta kategoriaren barnean.

3. oinarria. Izangaien betekizunak.

Lanposturako hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Espainiarra, Europar Batasuneko estatu kide batekoa edo Europako Erkidegoak izenpetu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuaren barruko estatu batekoa izatea, betiere langileen zirkulazio askea kontuan hartzen badute.

Honako hauek ere parte hartu ahal izanen dute: Espainiako pertsonen ezkontideek, Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea dutenen ezkontideek eta aipatutako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan dauden estatu-tako nazionalitatea dutenen ezkontideek, betiere zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta horien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, zuzenbidez bananduta ez badaude, 21 urtetik beherakoek edo adin horretatik gorakoek izanik haien kontura bizi direnek.

b) Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroaren gehieneko adina ez gainditzea.

c) Eskola-ziurtagiria izatea edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

d) Zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez egotea eta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizita ez egotea.

f) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena izatea eta traktore propioa izatea.

Aurreko baldintzak eskabideak, aurkezteko epea amaitzen den egunaz gain, hautaketa-prozeduran eta kontratazio-aldian ere bete beharko dira.

Baldintza horiek guztiak agiri bidez egiaztatu beharko dituzte hautatzen diren eta aldi baterako kontratazioarako deitzen diren izangaiek, adierazten zaien unean, dagokion kontratua formalizatu aurretik.

4. oinarria. Eskabideak.

4.1. Eskaerak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostegunera, eta 09:00etatik 13:30era, ostiraletan (egun baliogabeetan izan ezik), hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; bestela ere, Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein modutan aurkeztu ahal izanen dira.

4.2. Eskabideak deialdi honetan I. eranskin gisa argitaratutako eredura egokitu behar dira.

4.3. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

A) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

B) Eskatutako titulazioaren kopia.

C) B motako gidabaimenaren kopia.

4.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin da luzatu.

4.5. Eskabidean antzematen diren errakuntza materialak edo egitezkoak horretarako ezarriko den 5 egun balioduneko epean zuzendu ahal izanen dira.

4.6. Desgaitasun aitortua duten izangaiek ariketak egiteko behar diren denbora eta bitartekoen balizko egokitzapenak eskatu ahal izanen dituzte; kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute. Aparteko orri batean adierazi beharko dute zer desgaitasun duten eta zer egokitzapen egin zaizkien, eta organo eskudunak emandako desgaituaren legeko egoeraren jatorrizko egiaztagiria edo fotokopia konpultsatua erantsi behar izanen dute.

5. oinarria. Izangaiek onartzea eta erreklamazioak.

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkateak ebazpena emanen du onartutako eta, hala badagokio, baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzeko. Zerrenda hori udaletxeko iragarki-oholean eta bere webgunean argitaratuko da.

5.2. Baztertutako izangaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izanen dituzte behin-behineko zerrenda iragarki-oholean argitaratu eta hurrengo bost egun baliodunen barnean, eta, hala badagokio, akatsak zuzendu ahal izanen dituzte, Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko duten idatziaren bidez.

5.3. Erreklamazioen epea amaitu eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, alkateak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko du, eta iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratzeko agindua emanen du, deialdi honetan aurreikusitako hautaprobak egiteko eguna, ordua eta tokiarekin batera.

6. oinarria. Epaimahai kalifikatzailea: eraketa eta egitekoak.

6.1. Honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

Lehendakaria: Gurutz Gorraiz Armendariz jauna: Garraldako Udaleko alkatea.

Ordezkoa: Ángel M^a Loperena Rota jn.: Garraldako Udaleko alkateordea.

Lehenengo mahaikidea eta ordezkoa: Garraldako Udaleko alkateak izendatuko du.

Bigarren mahaikidea eta ordezkoa: Garraldako Udaleko alkateak izendatuko du.

Batzordekidea – Idazkaria: Javier Sagaseta de Ilurdoz Uranga jauna, Garraldako Udaleko idazkaria.

Ordezkoa: Luis de Potestad Tellechea jauna, Aribere, Garaioa, Hiriberri, Abaurrepea eta Abaurregainako udaletako idazkaria.

6.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta deialdia egin duen organoari jakinarazi beharko diote, indarreko araudian ezarritako abstentzio-arrazoiak daudenean; izangaiek epaimahaikideak ezetsi ahal izanen dituzte adierazitako arrazoiak daudenean.

6.3. Hautaprobak hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bertan ez bada, eta, betiere, lehendakaria eta idazkaria edo horien ordezkioak bertan direla.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeari eta aplikatzeari buruz sor daitezkeen arazo guztiak. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitatezko botoa erabil dezake.

6.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak har ditzake proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek epaimahaiarekin lankidetzan jardunen dute, eta beren espezialitate teknikoetan aritzera mugatuko dira.

7. oinarria. Oposizioaren garapena eta balorazioa.

Oposizioa 2022ko urritik aurrera hasiko da.

Proba guztien deialdietako iragarkiak udaletxeko iragarki-oholean eta Udalaren webgunean baino ez dira argitaratuko.

7.1. Oposizioko ariketak:

Oposizio-faseak 100 puntu izanen ditu, eta honako ariketa hauek izanen ditu:

Proba teorikoa: II. Eranskinean jasotako lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko idatzizko ariketa izanen da. Probaren iraupena Epaimahaiak zehaztuko du eta haren bidez gehienez 40 puntu lortuko dira. Gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten izangaiak baztertu egingen dira.

Proba gaindituko dute gutxienez proban ezarritako gehieneko puntuazioaren % 50 lortzen dutenek.

Oposizioaren garapena plika itxien sistemaren bidez arautuko da.

Ariketa praktikoa. Proba praktikoa teorikoa gainditu duten izangaiek bakarrik egingen dute.

Lanpostuarekin zerikusia duten hainbat proba praktikoko egin beharko dira, II. eranskinean zerrendatutako gaiei buruzkoak.

Ariketa honetako gehienezko puntuazioa 60 puntukoa izanen da, eta gutxienez 30 puntu lortu beharko dira gainditzeko. Gutxienezko puntuazioa lortzen ez duten izangaiak baztertu dira.

Epaimahaiak zehaztuko du proba hori egiteko denbora. Proba baloratzeko irizpideak hasi baino lehen zehaztuko dira.

7.2. Ariketa egitera sartzeko deialdi bakarra egingen da. Izangaiak NANA, pasaporte, gidabaimena edo nortasuna egiaztatzen duen eta epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste agiriren bat eraman beharko dute. Oposiziotik kanpo geldituko dira bertaraten ez diren edo eskatutako moduan beren nortasuna egiaztatzen ez duten pertsonak.

Kontratazio-zerrendan sartzeko, proba gainditu behar da.

Eskaeran hala eskatu duten minusbaliotasun egiaztatuak dituzten pertsonentzat (organo eskudunaren ziurtagiriaren bidez), ariketak egiteko behar diren denbora eta baliabideen egokitzapenak ezarriko dira.

8. oinarria. Gainditu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen dokumentuak aurkeztea.

8.1. Hautaketa-probak amaitu ondoren, epaimahaiak gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du udaletxeko iragarki-taulan, lortutako puntuazioaren arabera, eta alkateari kontratazio-zerrendaren proposamena helaraziko dio, onar dezan.

Gainditutakoen zerrenda, lortutako puntuazioaren arabera, Udalean beharrezkoak diren maila bereko lanpostuetarako kontratazioetarako zerrenda gisa mantenduko da, zerbitzuaren beharren eta deialdi honen xedearen arabera, gehienez 3 urterako edo deialdi berri bat egin arte.

8.2. Proposatutako izangaiak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Udalaren Erregistro Orokorrean, kontratazio-aldia hasi baino lehen:

a) Izangaiaren NANaren fotokopia konpultsatua edo haren nazionalitatea eta nortasuna egiaztatzen duen agiri baliokidea.

b) Deialdi honetako 3. oinarrian eskatzen den tituluaren edo titulu hori lortzeko azterketa-eskubideak ordaindu izanaren frogagiriaren kopia konpultsatua (deialdian parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen).

c) Medikuen Elkargo Ofizialak emandako mediku-ziurtagiri ofiziala, zerbitzu anitzetako enplegatuaren lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten dion gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

d) Desgaitasuna duten izangaiek, gainera, deialdiaren xede den lanpostuarekin bateragarria dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, balioespen- eta orientazio-talde eskudunek luzatua.

e) Hautagaia eginkizun publikoak betetzeko desgaituta edo etenda ez dagoela eta ezein administrazio publikoren zerbitzutik bereizi ez dela adierazten duen zinpeko aitortpena, bere erantzukizunpean.

f) Proposatutako izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badu, zinpeko aitortpena aurkeztu beharko du, non adieraziko den ez dagoela diziplinazko zehapenik edo zigor penalik bere estatuan funtzio publikoan sartzea galaraziko duenik.

g) Bizileku-txartela, Europar Batasuneko herritarren kasuan.

i) B motako ibilgailuak gidatzeko baimena eta bere traktorea erabilgarri izanen duenaren egiaztatzea.

j) Udalak eskatzen dizkion gainerako agiriak.

8.3. Adierazitako epearen barnean, eta behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiek aurreko puntuari adierazitako agiriak aurkezten ez baditu, ezin izanen da kontratatu, eta jarduera guztiak baliogabetuta geldituko dira, eskabidean faltasutasa egoteagatik izan dezakeen erantzukizunari kalterik egin gabe.

9. oinarria. Kontratazio-zerrendak kudeatzea.

9.1. Kontratazio-zerrendek gehienez ere 3 urteko indarraldia izanen dute, edo beste deialdi bat egin arte.

9.2. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda kudeatzeko arauak.

A) Deia:

Oro har, gainditu duten izangaien kontratazioa egingen da, aurretik banan bana deituta, zerbitzuaren beharren arabera.

Horiek errazago aurkitzeko, izangaiek harremanetarako telefono bat eta helbide elektronikoko bat jakinarazi beharko dituzte gutxienez, eta etengabe eguneratuta eduki beharko dituzte.

Izangaien deialdia dagokion zerrendan agertzen diren lehentasun-hurrenkeraren arabera eginen da. Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren 3. paragrafoan ezarritakoa hartuko da kontuan deialdia egiteko.

Telefono bidez kontratua eskaintzen zaion izangai bakoitzari, gutxienez, bi aldiz deituko zaio, harremanetarako emandako komunikabideen bitartez.

Deialdi bakoitza ondoren, idatziz jasoko da zein egoeratan, zein egunetan eta ordutan egingen den.

Hautagairen bat aurkitu ezin denean, zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoekin jarriko da harremanetan, eskainitako lanpostua edo lanpostuak bete arte.

Harremanetan jarri ezin izan diren interesdunek beren lekua mantenduko dute zerrendan.

B) Uko egiteak:

Hautagairen batek eskainitako lanpostuari uko egiten badio, zerrendako azken tokira pasako da, salbu eta honako kasu hauetakoren batean dagoela egiaztatzen bada:

- 1.- Indarrean dagoen administrazio, edo lan, izendapen edo kontratu baten bidez behartuta egotea.
- 2.- Aldi baterako ezintasun-egoeran edo amatasunagatik edo adopzioagatik lizentzia-egoeran egotea.
- 3.- 3 urtetik beherako seme edo alaba bat zaintzea, norberarena zein adoptatua izan.
- 4.- Odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko senide bat zaintzea, adinagatik, istripuagatik edo gaixotasunagatik bere kabuz moldatu ezin dena.
- 5.- Berezko ezkontza edo antzeko egoera, bikote egonkorren berdintasun juridikorako uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera, uko egitea eratu eta hurrengo hamabost egun naturalen barnean edo aurretik gertatzen bada.

Aurreko paragrafoan zerrendatutako egoeraren batean dauden izangaiak, edo organo eskudunak baloratu beharko dituen antzeko egoeretan daudenean, agiri bidez eta modu frogagarrian egiaztatu beharko dute hori, hilabeteko epean, uko egiten dioten lanpostua eskaintzen zaien egunetik zenbatzen hasita; kasu horretan, zerrendan betetzen duten leku berean jarraituko dute.

Artikulu honetako lehenengo paragrafoan zerrendatutako kasu guztietan, hautagaiek zerbitzuak emateko prest daudela jakinarazi beharko dute, uko egitea justifikatu zuen egoeraren amaiera-data adierazten duen dokumentazioaren bidez. Jakinarazpen hori egiten ez den bitartean, ez zaie lanposturik eskainiko.

C) Salbuespenak:

Deialdia eragin duen zerrendatik kanpo utziko dira honako kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

A) Eskainitako lanpostuari arrazoirik gabe uko egitea.

B) Sinatutako kontratuari uko egitea.

C) Deialdiaren ondorioz lanpostua onartu eta astebeteko epean dagokion kontratua ez sinatzea.

9.3. Kontratuei alta emanen zaie eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean afiliatuko dira; beraz, dagokien kuota izanen dute beren kargura, bai eta PFEZaren atxikipena ere, dagozkion zenbatekoetan.

10. Oinarria. Kontratazioa eta kontratuaren hasiera.

10.1. Aurreko oinarrietan xedatutakoa bete duen proposatutako izangaiaren aldi baterako kontratazioa, lan-erregimenekoa, izenpetzeko eskumena alkateak izanen du, deialdi honetako 1. oinarrian xedatutakoaren arabera.

10.2. Kontratutako izangaiak dagokion egunean hasi beharko du lanpostua betetzen, horretarako formalizatutako kontratuaren arabera.

10.3. Hilabeteko probaldia ezartzen da, kontratazioaren hasiera-datatik zenbatzen hasita.

11.Oinarria. Aplikazio osagarria.

Deialdi honetan aldi baterako kontratazioa kudeatzeko aurreikusi ez den guztirako, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak emandako 814/2010 Foru Aginduan, abenduaren 31koa, ezarritakoa aplikatuko da.

12. oinarria. Datuen babesa.

(EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 13. artikuluan ezarritakoaren arabera, hautagaiei honako hau jakinarazten zaie:

- Garrantzitsua da parte-hartzaileek emandako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.
- Tratamenduaren helburua langileak hautatzea eta deialdi honen xede den lanpostua betetzea da.
- Oinarri juridikoa honako hau da: DBEOren 6.1.b) artikulua Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko beharrezko tratamendua edo interesdunak eskatuta kontratu aurreko neurriak aplikatzeko beharrezko tratamendua, eta DBEOren 6.1.c) artikulua Tratamenduaren erantzuleari aplikatu beharreko legezko betebeharrak betetzeko beharrezko tratamendua.
- Datuak biltzen diren helburua betetzeko eta deialdiaren eta datuen tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (Nafarroako toki entitateen dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak).
- Datuak legez aurreikusitako kasuetan jakinaraziko dira (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua), argitalpena barne, 5/2018 Foru Legearen 19.2.f artikulua arabera.
- Titularrek informazio gehiago aurkituko duten udal-bulegoetan erabil ditzakete sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, aurka egiteko eta eramateko eskubideak.
- Era berean, Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazioa aurkezteko eskubidea dute, tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badute.

13. Oinarria. Errekurtsoak.

Deialdiaren, haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, honako errekurtsio hauetako bat aurkeztu ahal izanen da, aukeran:

A) Berraztertze errekurtsioa, egintza egin duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

B) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Iruñeko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

C) Gora jotzeko errekurtsoa Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo hilabetearen barnean.

D) Epaimahai kalifikatzailearen erabakien aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izanen zaio Udaleko alkateari, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barnean.

Garralda, 2022ko irailaren 5a.- Alkate-udalburua, Gurutz Gorraiz Armendariz.

I. ERANSKINA

Instantzia eredu ofiziala (PDF).

D./D^aandrea/jauna,

con DNI.....NAN-aduna,

Helbidea/Dirección.....

Telefonoa/Teléfono

Posta Elektronikoa/E-mail

AZALTZEN DUT/EXPONE QUE:

Deialdian eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen ditu, denboran eta forman.

Cumple en tiempo y forma con todos y cada uno de los requisitos exigidos en la convocatoria.

Probetan parte hartzeko eskabidea aurkezten den egunean deialdiko baldintzak betetzen dituela adierazten du erantzukizunez, eta dokumentazioa eskatzen zaionean aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Declara responsablemente que cumple con los requisitos de la convocatoria a la fecha de la entrega de la solicitud para tomar parte en las pruebas y que se compromete a presentar la documentación cuando le sea requerida.

Data eta sinadura

ANEXO II. ERANSKINA

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aritmetikako eta geometriako oinarrizko arauak.
- 2.- Idazteko eta ortografiako oinarrizko arauak.
- 3.- Lorezaintzako eta mendiko produktuak, makinak eta erremintak ezagutzea, maneiatzea eta mantentzea (sasiak kentzeko makina, belar-moztekoa, hesi-ebakigailua, aizkora, motozerra, altueran inauteko plataforma jasotzailea) Fitosanitarioak aplikatzea.
- 4.- Inauste-lanak: zuhaitzak, zuhaixkak eta heskaiak inaustea. Inausketaren printzipioak.
- 5.- Geolokalizazioa
- 6.- Soldadura. Oinarrizko kontzeptuak eta lanak.